



www.ornitho.eus

www.ornitho.eus-eko lorategi modulua.

Juan Arizaga¹, Maite Laso¹

¹Aranzadi Zientzia Elkartea, Zorroagagaina 11, 20014 Donostia

Kontaktua: jarizaga@aranzadi.eus

Dokumentu hau honela aipatu:

Arizaga, J., Laso, M. 2018. *www.ornitho.eus-eko lorategi modulua*. Argitaragabeko txostena. Aranzadi Zientzia Elkartea.



www.ornitho.eus

www.ornitho.eus es proiektua ondorengoaren ekimen bat da:



aranzadi
zientzia elkarte

SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES

LAGUNTZAILEAK:



INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia



URDAIBAI
BIRD CENTER
ARANZADI SOCIETY OF SCIENCES



Centro
de Estudios Ambientales
CEA
Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia



Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca



Instituto Alavés de la Naturaleza
**ian
ani**
Arabako Natur Institutua



HEGAZTI TXIKIENTZAKO JANTOKIEN INFORMAZIOA ETA ETIKA.

Hegaztientzako jantokiak kokatzea elikadura artifizialeko puntuak sortzea dakar. Honek, hegaztien jokaeran, biziraupenean eta ugalketan eragina izan dezake. Eragin hauek, ordea, positiboak zein negatiboak izan daitezke [1]. Jantoki bat martxan jartzeak izan ditzakeen eragozpenak behar bezala kudeatzen badira, hau kokatzeak desabantailak baino, abantaila gehiago ekar ditzake.

Abantailak:

- Hiriguneetan, habitat naturala osorik edo partzialki suntsitu edo aldatu denean, jantokiak elikagai baliabide garrantzitsua dira. Hauek, habitat galera eta ondoriozko baliabideen desagerpena gainditzen laguntzen dute. [2].
- Hegaztien neguko biziraupena eta ugalketaren produktibitatea handitzen laguntzen dute[1].
- Jantokiek gertuko hegaztien behaketa sustatzen dute, beraz, ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazioan zeregin garrantzitsua izan dezakete. Erresuma Batuan, non kontserbazio-erakundeek herritarren laguntza handia duten (adib. RSPBk milioi bat bazkide baino gehiago ditu), hegaztientzako jantoki kopurua miloi erdi baino gehiagokoa da. Hegaztiak herritarrei hurbiltzea beharrezkoa da haien kontserbazioan parte hartu dezaten, monitorizazio eta kontserbazio proiektuetan aktiboki parte hartuz zein proiektu horientzako eta hauek sustatzen dituzten erakundeentzako laguntza ekonomikoa eskainiz.
- Eskala handian jantoki sare baten ezarpena, gainera, negu garaian hegaztien errolda estandarizatuak egiteko erabili daiteke. Honela, epe luzean hegaztien ugaritasunean aldaketak kalkulatu eta aztertu daitezke [3, 4].



Desabantailak:

- Jantokiak noizbehinka ez badira garbitzen eta desinfektatzen, gaixotasunen hedapena eta parasitoen transmisioa erraztu dezakete, jantokiek indibiduo kopuru handia biltzen baitute[5].
- Jantokia jartzeko moduaren arabera, hau erabiltzen duten hegaztien harrapakaritza areagotu daiteke, harrapari hegodun zein ugaztunen aldetik(urtxintxak, katuak...) [6].
- Jartzen den janari motaren arabera, hegaztientzako onuragarriak ez diren aldaketak eragin daitezke,elikagai batzuen falta edo gehiegikeria dela eta.

NON EZARRI JANTOKIA?

Jantokia non jarri behar den erabakitzerako garaian bi gauza hartu behar dira kontuan: (1) ondo ikustea eta (2) hegaztientzako leku seguru batean egotea. Lehenengo premisa lortzea nahiko erraza da, bigarrenak planifikazio pixka bat behar duelarik. Oro har, jarraibide hauek segi daitezke:

1. Leiho eta leihateak saihestu. Hegaztiekin hauekin talka egin dezakete eta ondorioz hil. Jantokia leihotik 1m baino gutxiago edo 10m baino gehiagoko distantziara jartzea gomendatzen da,inoiz ez leihotik 1-10 m bitarteko distantzian.
2. Ziurtatu hegaztiekin ezarleku on bat eta babeslekuak gertu izatea, 3-4 m-ko distantziara gutxi gorabehera. Makila, enborra, heskaia edo zuhaitza izan daiteke. Hau zenbat eta trinkoagoa izan, hobeto, harrapakari bat agertuz gero babesleku moduan erabili dezaketelako. Hala ere, babeslekua jantokitik oso gertu egotea saihestu behar da, urtxintxek, katuek edo beste harrapakari ez hegodunek jantokira erraz salto egin ez dezaten.
3. Hegaztiekin jantokia erabiltzen ez badute, pazientzia izan. Hegaztiekin jantokia ezagutu arte denbora pasa daiteke. Saiatu janaria lurretik eta



jantokitik pixka bat sakabanatzen, nabariagoa izan dadin. Zentzuzko denbora-tarte bat pasa bada eta hegaztirik egon gabe jarraitzen badu, kokapena aldatu daiteke edo erakargarriagoa egingo duen landaredia landatu inguruan.

4. Saihestu jantokiak haizete lekuetan edo espazio edo eremu irekietan kokatzea.
5. Oro har, jantokia ezartzeko edozein leku ona izan daiteke: balkoi bat, terraza, lorategi edo parkea, baina guneko zaratsa eta jendetsuak saihestu. Etxe-animaleak, batez ere katuak, arazo bat dira.
6. Ez erabili produktu kimikoak (herbizidak, plagizidak, etab.) jantokiaren inguruan.

JANTOKIAZ GOZATU.

Jantoki bat kokatzea bultzatzen duen arrazoietakoa bat hegazti behaketa izan daiteke. Helburu hau lortzeko, honako hau gomendatzen dugu:

1. Jantokia zure etxetik edo gordelekutik ondo ikusten duzun leku batean kokatu. Kontuan hartu eguzkiaren kokapena egunean zehar, eta ahal bada, eguzkia atzealdean egotea ahalegindu kontraargiak saihesteko asmotan.
2. Ez ahaztu aldizka jantokian janaria jartzea. Elikagai mota ondo aukeratu jantokira erakarri nahi dituzun espezieen arabera. Saiatu janaria era askotakoa izatea.
3. Jantokiak iraizkin, luma, janari-hondarrez... betetzen dira. Horregatik urtean behin gutxienez garbitu behar da. Hegaztiak asko erabiltzen badute maizago garbitu beharko dugu.
4. Jantokiek negu garaian hobeto funtzionatzen dute. Uda garaian gainera, komenigarria da janaria jartzeari uztea, bertako hegaztiekin ordezkariak bilatu dezaten eta modu honetan haien biziraupena ez da jantokiaren menpe egongo.



JANTOKI MOTAK.

Hegazti txikientzako jantoki mota ugari daude. Oro har, hauek honela sailkatu daitezke:

- Plataforma. Normalean, oinarri bertikal batean kokatzen den plataforma bat da non gainean janaria jartzen den. Plataformak teilatua izan dezake ala ez. Toki euritsuetan teilatua jartzea gomendatzen da, bestela euri pilaketa saihesteko plataformari zulo txikiak egitea gomendatzen da.
- Etxea. Janaria tobera moduko egitura batean pilatzen da, horrela oinarrian kokatutako plataforma batera erortzen da janaria kontsumitzen doan heinean.
- Hodia eta *Nyjer*. Janaria adar edo beste egitura batetik zintzilik dagoen hodi batean jartzen da. Hodia material gardenez egina badago, janaria oinarrian dagoen plater txiki batean erortzen da (tobera moduan); aldizka, hodia sare mehe batez eraikita egon daiteke (hegaztiekin barruko janaria mokokatzen dute) edo irekiera txikiak eduki ditzake, aldamenean ezarleku horizontal batekin janariaren eskuera errazteko (*Nyjer* jantokia).
- Leihoa. Jantoki sinpleak dira, kaiku baten modukoak eta leihoan bertan edo ondoan kokatzen dira.
- Burdin sarea. Normalean metalezko sareez eraikitako edukiontzi bat da eta janaria barruan jartzen da.



1. Irudia. Jantoki mota ezberdinen adibide batzuk: A, Estalitako plataforma; B, *nyjer* hodia; C, Saredun hodia; D, Leihorako jantokia. Argazkiak: shutterstock.



JANARI MOTAK.

Hegaztiei eman daitekeen janari ugari dago. Hauek honela sailkatu daitezke:

- Hazi nahasketak: ekilore haziak, artoa, artatxikia, etab. Gatzik gabe betiere.
- Fruitu lehorrak: kakahueteak, etab.
- Fruta fresko edo lehorra.
- Zizareak: irin-harrak, euli-larbak, etab.
- Gantz zatiak, haziekin nahastuta.



EUSKADIKO HEGAZTIEN JANTOKI SARERA BATU ZAITEZ.

www.ornitho.eus atariak lorategiko fauna behaketak erregistratzeko modulu bat dauka. Funtsean bi formularioz osatzen da, non batean lorategia edo jantokia erregistratu daitekeen eta bestean, haiei loturiko behaketak gehitu. Gehiago jakiteko [esteka](#) honetako tutoriala behatzea gomendatzen dizugu.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA.

1. Robb, G.N., et al., *Food for thought: supplementary feeding as a driver of ecological change in avian populations*. Frontiers in Ecology and the Environment, 2008. **6**(9): p. 476-484.
2. Fuller, R.A., et al., *Garden bird feeding predicts the structure of urban avian assemblages*. Diversity and Distributions, 2008. **14**(1): p. 131-137.
3. Lepage, D. and C.M. Francis, *Do Feeder Counts Reliably Indicate Bird Population Changes? 21 Years of Winter Bird Counts in Ontario, Canada*. The Condor, 2002. **104**(2): p. 255-270.
4. Bonter, D.N. and M.G. Harvey, *Winter Survey Data Reveal Rangewide Decline in Evening Grosbeak Populations*. The Condor, 2008. **110**(2): p. 376-381.
5. Galbraith, J.A., et al., *Experimental feeding regime influences urban bird disease dynamics*. Journal of Avian Biology, 2017. **48**(5): p. 700-713.
6. Cowie, R.J. and J.R. Simons, *Factors affecting the use of feeders by garden birds: I. The positioning of feeders with respect to cover and housing*. Bird Study, 1991. **38**(3): p. 145-150.




LANDA ORRIA

1/3 orria

Lorategia:

Data:


Hasiera ordua:__:__: Amaiera ordua:__:__





LANDA ORRIA

2/3 orria





LANDA ORRIA

3/3 orria

